

HERRITARRENTZAKO BATZORDEA

## 2- Hernaniko Gaztelekua Zerbitzuaren kontratu luzapena

Hernaniko Gaztelekua zerbitzua lehiaketara atera zuen 2017an Udalak. Horretarako Kontratazio sailak ohiko prozedura ireki bidez esleitzeko administrazio klausula bereziak prestatu zituen. Lehiaketa pleguen nondik-norakoak hauxe jasotzen zuten:

**Helburua:** Hernaniko nerabeentzako sustapen zerbitzua ("Gaztelekua") arautzea da, Gipuzkoako Gaztematika Haur eta Gazteak Sustatzeko Sistemaren markoaren barruan.

**Iraupena:** Kontratu honen indarraldia bi urtekoa uzango da; 2017/07/01etik hasita eta urtez urte luzagarria, beste bi urtez gehienez.

**Lizitazio prezioa:** Lizitazioaren gehieneko prezioa urteko 90.000 eurokoa izango da (Gehi %21 BEZa, baldin eta badagokio). Lizitatuzaileek diru kopuru hori beherantz hobetu dezakete.

Urburu Aisia Elkartek eta Hernaniko Udalak 2017ko ekainaren 21ean kontratua sinatu zuten.

2019ko apirilaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarrean adostu zen, besteak beste, Hernaniko Gaztelekua kontratuaren lehen luzapena egitea; 2019ko uztailaren 1etik hasita 2020ko ekainaren 30 arte.

Tokiko Gobernu Batzarrek 2020ko otsailaren 13an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki zuen kontratu honen bigarren luzapena. Horrela, kontratua 2020ko uztailetik 2021ko ekainera bitarte luzatu zen.

Kontratu berria prestatzeko aukerarik ez da izan 2021eko martxoaren 15etik Haur eta Gazteria teknikaria bajaran izan delako. Arrazoi horregatik kontrataziorako beharrezkoak diren plegu teknikoak eta balorazio irizpideak prestatzeko lanketa teknikoa egiteko aukerarik ez da egon.

Zerbitzuaren eskaintzan etenik ez egoteko, kontratuaren luzapena egitea proposatzen da.

Bertaratutakoak .....

### **Proposamena ..... Tokiko Gobernu Batzordeari:**

1.- Urburu Aisia Elkarteari (G-20771382) Hernaniko Gaztelekua zerbitzua kudeatzeko kontratua luzatzea kontratu berria indarrean sartu arte.

2.- Adjudikazio-prezioa mantentzea (urtean 90.000 €).  
Kontusaila: 1 02.227.04.231.03 2021 Kontratua. Gaztelekua